

# Baionako oposizioak Grenet auzapezaren jarrera salatu du

«Errobiko kasernako antolaketari buruz ez da eztabaidarik izan»

Eneko Bidegain / Baiona

Baionan, Errobiko kasernaren antolaketa eztabaida sortzaile izan da, baina, oposizioak salatu duenez, informazioa ez da

heltzen, eta horregatik zailtasun handiak dituzte iritzi baten ukaiteko. Zinemari emana zaion lehentasuna kritikatu dute; gainerako proiektuak «koherentzia gabe» txertatu direla diote.

BIHAR eztabaidatuko da Baionako herriko kontseiluan Errobiko kasernaren antolaketa. Sozialistek, komunistek, ekologistek eta abertzaleek osatzen duten oposizioak bere iritzia azaldu zuen atzo. «Informazio eta eztabaida eza» salatu zuten, urte bat eta erdiz ez baita ezer eztabaidatu kontseiluko bilkuretan, eta horretaz arduratzen den batzordearen berririk ez baitute. Pentsatzen dute edo ez dela bildu, edo ez direla gomiatuak izan, nahiz eta batzordeko partaide izan. Baionaren eta bereziki hiri erdiaren etorkizunari begira «horrelako garrantzia duen proiektu baten gordetzea onartezina» dela zioten. Hautetsien eta hiritarren iritzi zabalaren beharra ikusten dute. Demokrazia falta gaitzetsi zuten, oroitaraziz Baionako biztanleen ehunetik 40ek ez zutela Grenet-en zerrendaren alde bozkatu bigarren itzulian.

## Zinema oinarri

Errobiko kasernaren antolaketa guztia zinema proiektuaren inguruan oinarritua dela kritikatu dute. Oposizioaren iduriko, zinemari emana zaio lehentasun bakarra eta beste proiektu guztiak «koherentziarik gabe txertatzen dira». Martine Bisautak salatu zuenez, «oraingo proiektuak ez du ezer ikustekorik 97an finkatuarekin». Zinemari dagokionez, Jean Grenetek San Leon auzoan iragarri zuenetik zenbat proiektu eta toki aldaketa izan diren zerrendatu zuen. «180 gradu-ko itzuliak» aipatuz, «txantxa horien gastua zerga biltzaileentzat zenbatekoa» den galdetu zuen.



BOB EDME

Jean Grenet auzapezaren jarrera salatu du oposizioak.

Errobiko kasernako unibertsitate eremuari buruzko inkoherentzia ere aipatu zuten. Bernard Kausse-k azpimarratu zuen azken denboretan IUTak eta BTSak

etengabe tokiz aldatzen ari direla, eta hori, ororen buru, garesti ateratzen dela. Kasernan unibertsitatearen gartzea aipatzen delarik, sinesgarritasun falta eragotzi diote Greneti. «Ez dakigu zer eremu geldituko den unibertsitatearentzat», zehaztu zuten. Unibertsitateari buruzko azpiegitura falta ere aipatu zuten, toki hori horretarako ez dela batere egokituera erakusteko. Alabainan, ikasleek gune horretatik joan nahi dute, ez baita, besteak beste, bazkaltzeko toki egokirik.

## Iruñerriko Hirigintza Araudiak aurkeztu ditu Nafarroako Gobernuak

■ Inguru honen etorkizuneko itxura irudikatzen dute araudi horiek

A.B. / Iruñea

HAMAR urteko lan eta eztabaiden ondotik, Nafarroako Gobernuak onartu egin ditu Iruñerriko Hirigintza Araudiak, bertako 28 udalerrietako plangintza kontuan hartu eta inguruko garraiobide, naturgune, industriagune eta etxebizitzendako alderdiak zehaztu eta arautuko dituztenak.

Egitasmo honek idurika-

tzen du, horrela, herrialdeko populazioaren erdia biltzen duen inguruaren etorkizuneko itxura. Zehazten du, esate batera, nondik igaroko den balizko abiadura handiko trenaren ibilbidea, erreserbatu egiten ditu lur sailak Aldudetik igaroko litzatekeen mugaz gaindiko autobidearendako eta sahiesbideen desdoblamenturako. Hala-ber, planak aurreikusten du etorkizunean Noaingo aire-

portuak izan lezakeen zabal-tzea.

Egitasmoan aipatu egiten dira inguruneak. Etor litezkeenak, esan nahi da. Haien bidez «hiri sarea egituratuko litzateke», atzo Ingurugiro, Lurralde Antolamendu eta Hirigintza kontseilari Yolanda Barcinak aurkeztu zuen txostenak dioenez, eta populazioari balio natural handiko inguruekin gozatzeko aukera emango litzaioke.